


IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPEN JASANGARRIENTZAKO DEKALOGOA

SAN SEBASTIAN-GIPUZKOA FILM COMMISSION



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbide, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN




DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico

donostiasustapena
fomentosansebastián

IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPEN JASANGARRIENTZAKO DEKALOGOA

SOSTENIBILIFILMS-EK
AURKEZTEN DU



1/


KOKALEKUETAN INPAKTUAK PREBENITZEA

- Kokalekuak hautatu aurretik, informa zaitez araudi espezifikoaz, lurraldekoaz edo bertako ingurumeneko arauen inguruan. Beharrezkoa bada, galdetu administrazio eskudunari eta/edo tokiko profesionali.
- Aurreratu ekoizpenak kokapenetan sor ditzaketen ingurumen inpaktuak eta diseinatu haientzako prebentzio neurriak: mugatu eta seinalertzatu erabiliko diren espazioak, identifikatu eta babestu elementu naturalak eta/edo ondarea, etab.
- Gertuko udalerriren batean eragozpenik eragitea aurreikusita baduzu, aldeztu aurretik jakinarazi eta hartu neurriak zarata, argi-kutsadura, ibilgailuen trafikoa eta abar murrizteko.

2/

MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA PLANIFIKATZEA

- Lan-taldea mugitzeko, planifikatu lekualdaketa ahalik eta modu jasagarrienean egitea, jatorri-helmuga distantziaren arabera (autoa, tren, autobusa, hegazkina, etab.).
- Aukeratu kokapen nagusitik ahalik eta gertuen dagoen ostaldea eta saiatu talde osoa ostaldu berean elkartzen.
- Taldeari informatu garraio aukeren inguruan, garraio publikoa eta bizikleta sustatuz. Taldearen eguneroko mugikortasuna programatu behar izanez gero, egizu hurrengo neurriak kontuan hartuta; energia efizientzia handiko ibilgailuak/ibilgailu elektrikoak alokatu, distantzia txikiagoko ibilbideak egin, partekatuzko ibilgailuen sistema ezarri (ibilgailuak betez), etab.





3/ MATERIALEN KONTSUMOA MURRIZTEA


- Ekoizpena hasi aurretik, identifikatu departamentu bakoitzaren kontsumoak eta proposatu aukera jasangarrienak: jantziak garbitzeko xaboi biodegradagarriagoak, makillaje eta ile-apainketarako produktu ekologikoak, eraikuntzarako zur ziurtatuak, artelanak egiteko pintura ekologikoa, etab.
- Bulegoan, gutxiagotu ahal bezainbeste paperaren erabilera: sustatu posta elektronikoa, online ontziratzeke txartela, eta baita sarean lan egiteko aplikazioen erabilera ere.
- Saia zaitez ekoizpen beharrei egokitzen diren tokiko hornitzaile jasangarriak hautatzen eta kontratatzen eta jasangarritasun arloan oinarritzko betekizunak betetzen dituztenak: tokiko enplegua sustatzea, produktu ekologikoak edo biodegradagarriak hornitzea, erabilera bakarreko materialen kontsumoa murriztea, plastikozko bilgarriak ahal den neurrian murriztea, etab.

4/ BIRZIKLATZEKO BEREIZTEA

- Identifikatu ekoizpenean sortuko diren hondakinak eta informatu hondakinen inguruko tokiko araudi espezifikoaren inguruan. Sortutako hondakinen arabera, hondakinak kudeatzeko enpresa bat kontratatu beharko duzu.
- Lantoki desberdinetan (bulegoa, kokapena eta seta), identifikatu igarobide estrategikoak eta haietan jarri hondakinak bereizteko edukiontziak. Identifikatu haietan jarri behar diren elementuak grafikoki eta modu errazean.
- Hondakinen bereizketa zuzena ziurtatu, eta egokiak ez diren ohiturak edo grafikoak zuzendu.

5/ CATERING JASANGARRIA PLANIFIKATZEA

- Eskualdeko profesionalak kontratatu eta jasangarritasun protokoloa inplementatu catering zerbitzuan, besteak beste, hurrengo neurriekin: tokiko eta sasoiko produktuak erabiltzea, aprobeixamenduko sukaldaritzaren sustapena, erabilera bakarreko ontzi eta materialak murriztea, etab.
- Saihestu kapsuladun kafe-makinak erabiltzea eta haien ordezkari alokatu kafe-makina elektrikoak edo automatikoak. Posible bada, gainera, ontziratatu gabe erosi kafea.
- Alokatu banagailuak dituzten termoak edariak hotz edo bero mantentzeko, eta banatu taldean bakoitzarentzako botila/edontzi berrerabilgarriak.



6/

JASANGARRITASUN ENERGETIKOA SUSTATZEA

- Laneko kideen artean sustatu ohitura jasangarriak: itzali erabat ekipo elektriko guztiak haien erabili ondoren eta saihestu geldoan edo stand-by uzten dituzten sistemak, deskonektatu kargagailuak eta erabiltzen ari ez direnean gainerako gailu elektronikoak, etab. Beharrezkoa balitz, inplementatu «energia ordezkaria» irudia, ohitura horietaz arduratuko den pertsona.
- Kokapena kanpoan bada eta energia hornidura behar badu, eman lehentasuna energia berriztagarriari edo sistema efizientei. Esaterako, alokatu sorgailu efizienteak.
- Grabatzeko bulego bat, estudio bat edo barneko kokapen bat alokatzera bazoaz, planifikatu efizientzia energetikoko neurriak: informa zaituz % 100 berriztagarria den energia hornitzaile batekin kontratatzeak aukera dagoen, egin argien puntuaren banaketaren diseinu efizientea, erabili LED lanparak edo kontsumo txikikoak, etab.

7/

URA MODU ERAGINKORREAN KONTSUMITZEA

- Bulegoan edo estudioan, identifikatu eta konpondu ur-jarioak edo galerak sanitarioetan, jarri presioa murrizten duten gailuak txorrotetan eta txikiagotu ur-tangen bolumena.
- Kanpoko kokalekuetan, planifikatu edateko uraren hornikuntza: ur sare publikoaren erabilera posible ez bada, eman lehentasuna uraren jatorria ziurtatu dezaketen tokiko eta gertuko hornitzaileak kontratatzeari eta haren osasun erregistroari.
- Saihestu hondakinak eta garbiketa produktu gogorak komunitate botatzea eta erabili itzazu haien ordeztu produktu ekologikoak edo biodegradagarriak.

8/

DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

- Barneratu lan aukeren berdintasun politika taldekide guztien artean, edozein direla ere haien banakako ezaugarriak, eta sustatu praktika hauek hornikuntza katean.
- Sustatu tokiko ekonomia: kontratatu bertako pertsonak, eta udalerriko hornitzaileak, edo ekoizpena egingo den eskualdekoak.



9/

JASANGARRITASUN TERMINOETAN KOMUNIKATZEA


- Diseinatu, sortu eta banatu jasangarritasun arloko informazio grafikoa. Eman lehenetsua informazio bide digitalei eta, beharrezkoa bada, inprimatu eta banatu kartelak departamentuetako eta zona komunitarioetako bistara dauden tokietan.
- Sortu ingurumen memorandumak, eta txertatu jasangarritasun mezuak call sheets direlakoetan: ohitura jasangarrien inguruko aholkuak, «Ba al zenekien...» moduko ingurumen inpaktu eta inpaktu sozialeko bitxikeriak, kokapenaren inguruko ingurumeneko informazio garrantzitsua, etab.
- Barne eta kanpo komunikazioa sustatu: partekatu taldekide guztiekin, eta baita gizartearekin ere, jasangarritasun arloan dituzun lorpenak. Eman «asteko sari berdea» jasangarritasun arloko helburuetan.

10/

JASANGARRITASUNA EBALUATZEA ETA INPAKTUA KONPENTSATZEA

- Sustatu jasangarritasun arloko prestakuntza ekoizpenaren taldean, taldeko kide bati esleitu jasangarritasun neurriak zaintzearekin lotutako funtzioak eta, beharrezkoa balitz, kontratatu zerbitzuak jasangarritasun arloan kanpoko aholkulari bati.
- Diseinatu jasangarritasunaren jarraipena eta ebaluatzeko sistema ekoizpenaren fase guztientzat. Erabili laguntza gisa egiaztatzeko zerrendak edo karbono aztarnaren kalkulagailuak.
- Konpentsatu itzazu gizarte eta ingurumeneko inpaktuak, edo CO2 isurpenak, tokiko intzidentzia duten ekintzen bitartez: eman materialak edo janari soberakinak, basoberritze edo ingurumena berreskuratzeko proiektuak, etab.

amaiera



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbidetza, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico

donostiasustapena
fomentosansebastián